

# Euskal Herriko Unibertsitatearen Laneko Arriskuen Prebentziorako **Plana**



**Universidad del País Vasco/  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Laneko Arriskuen  
Prebentziorako Plana**

**Universidad del País Vasco/  
Euskal Herriko Unibertsitatearen  
Laneko Arriskuen  
Prebentziorako Plana**

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Lege gordailua: BI -543-2010

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.  
Zurbaran, 2-4-48007 Bilbao

Inprimatzea: Berriz, S.L.  
Muruetas, 23 - 48220 Traña-Matiena

# Aurkibidea

---

<b>Hitzaurrea</b> .....	9
<b>Zioen azalpena</b> .....	11
<b>1. Prebentzio politika</b> .....	13
1.1. Prebentzio politikaren xedeak .....	13
1.2. Helburuak .....	14
<b>2. UPV/EHUren identifikazioa</b> .....	17
2.1. UPV/EHUren antolakuntza .....	17
2.2. Prebentzioaren antolakuntza .....	18
<b>3. Erantzukizunak eta eginkizunak</b> .....	21
<b>4. Ohiturak, prozedurak eta prozesuak</b> .....	25
<b>5. Prebentzioaren plangintza</b> .....	33
<b>6. Prebentzioaren jarraipena</b> .....	35
<b>1. eranskina</b> .....	37
<b>2. eranskina</b> .....	39
Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusetako Segurtasun eta Osasun Batzordearen Funtzionamendu arautegiak .....	39
UPV/EHUko Campus-Arteko Segurtasun eta Osasun Batzordearen Funtzionamendu arautegia .....	44

Erakunde publikoek eta enpresek zenbait betebeharrri egin behar diete aurre beren jarduerak zuzentzean, eta laneko arriskuen prebentzioa funtsezko betebeharr horietako bat da. Ez gara arauak betetzeaz bakarrik ari, benetako konpromisoaz baizik; lan-kultura berria sustatu nahi dugu, prebentzioa erakundeen funtzionamendua eta kudeaketa zuzentzen duten arauetan sartzen duen lan-kultura.

Gai horri dagokionez, UPV/EHUK konpromiso sendoa izan du beti. Gobernu Kontseiluak onartu berri duen Laneko Arriskuen Prebentzio Plana konpromiso horren emaitza da. Planak buru eman dio aurreko ekintza askori eta politika hori erakundearen eguneroko funtzionamenduan barneratzea sustatuko du. Eta parametro oso zehatzak erabiliko ditu horretarako: lan-jarduerak sor ditzakeen arriskuei begirako babes handia ezarri nahi du, asmo handiko prebentziozko politika abiaraziko du eta osasuna nahiz laneko segurtasuna prozedura guztiak zuzenduko dituzten oinarritzat hartuko ditu. Gainera, unibertsitate-komunitateko kide guztiek proiektuan parte hartzea lortu nahi du, eta horretarako, politika berria sustatzeko beharrezko baliabideak definituko ditu eta prebentzioari buruzko prestakuntza eta informazio egokiak jasotzeko erraztasunak emango ditu.

Garrantzitsua da hasieran adierazitakoa berriz aipatzea: geure helburua ez da legea betetzea bakarrik; lan-kultura berria hedatu nahi dugu, unibertsitate-komunitate osoa sentiberatu nahi dugu eta jarduera profesionalean arriskuei begirako babes sendoa eskaini nahi dugu, unibertsitateko lana atseginez betetako jarduera izan dadin.

IÑAKI GOIRIZELAIA

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak (LAPL) lanpostuetako segurtasun eta osasunaren inguruko beste ikusmolde bat ekarri zuen. Hori aplikatuta enpresako maila guztietan prebentzioaren kultura ezartzen da. Honen baitan, lan jarduerak langilearen osasunari eragin diezazkiokeen arriskuak ebaluatu eta minimizatzen dira.

Abenduaren 12ko 54/2003 Legeak laneko arriskuen prebentzioari buruzko arau esparrua aldatu zuen. Hala, laneko arriskuen prebentzioaren benetako kultura sustatu zuen lanean eta arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean (bai bere jarduera multzoan bai enpresako hierarkia maila guztietan) integratzeko betebeharra indartu zuen. **Integrazio hori laneko arriskuen prebentziorako plana ezarri eta aplikatuta gauzatuko da.**

*Maiatzaren 19ko 604/2006 Errege Dekretuak (Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua aldatzekoak)* argitu eta nabarmentzen du enpresaren baitan beharrezkoa den prebentzio jarduera bere kudeaketa sistema orokorrean integratu behar dela, **laneko arriskuen prebentziorako plana ezarrita eta aplikatuta**. Horren haritik, integrazioak ukitzen duen eremua eta horretarako erabili behar den tresna zehazten ditu.

Aipatu arau aurrekariak aintzat hartuta eta laneko arriskuen prebentzioaren kultura horri heltzeko beharraz jabetuta, UPV/EHUK Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana dakar, laneko arriskuen prebentzioa enpresetan (hots, beren jarduera eta hierarkia maila guztietan) integra dadin lortzeko.

Hala ere, nabarmendu behar da UPV/EHUn laneko arriskuen prebentziorako plana ezarri eta aplikatzea ez dela batere erraza. Unibertsitateen legeriak berak onartzen duen bezala, unibertsitatearen egitura hierarkikoa ez dago betebeharririzpideetan oinarrituta, baizik eta eskumen irizpideetan. Hala, erantzukizun maila ezberdinak, nola kudeaketakoak hala akademikoak, gainjartzen dira kide anitzeko eta lagun bakarreko organoen artean. Bestalde, unibertsitatearen jarduerak askotarikoak dira bai irakaskuntzan bai ikerketan, titulazio eta espezialitate ugari daudelako eta ikerketan era guztietako jarduerak burutzen direlako. Za-

lantzarik gabe, kontuan hartu beharreko alderdiak dira horiek prebentzio plana ezartzerakoan, horren funtsari eragiten baitiote.

Azken batean, Laneko Arriskuen Prebentziorako Planaren bidez, UPV/EHUK laneko arriskuen prebentzioaren benetako kultura sustatu nahi du unibertsitatean. Esparru agiri orokorra da eta, bertan, Unibertsitateak bere irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa lanean aplikatu beharreko prebentzio politika, UPV/EHUn prebentzioa antolatzeko modua eta horren prebentzio modalitateak zehazten dira, baita unibertsitateko egitura ezberdinen eginkizunak eta erantzukizunak ere. Prebentzio plana onartzea ezinbesteko urratsa da Unibertsitatearen kudeaketa sistema orokorraren barruan integratutako prebentzio sistema garatu ahal izateko.




# Prebentzio politika

## 1.1. Prebentzio politikaren xedeak

UPV/EHuren prebentzio politikak prebentzioa haren lanean integratu nahi du eta, horretarako, prebentzioaren kultura sustatzen du. Kultura horrek, indarrean dagoen arautegi aplikagarria betetzeaz haraindi, bizi kalitatea eta lan baldintzak gero eta gehiago hobetzeko aukera ematen du.

### Erakundearen Kudeaketa Sistema Orokorra



*Iturria: Guía Técnica para la prevención de riesgos laborales en el sistema de gestión de la empresa. Lan eta Gizarte Arazoetako Ministerioa. INSHT.*

Horren haritik, Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana funtsezko tresna da bai Unibertsitatearen prebentzio politika bultzatzeko bai beharrezko prebentzio ekintzak prebentzioaren kudeaketa sistema baten bidez garatu eta ezartzeko.

Prebentzio plana Unibertsitatearen prebentzio jarduerak bere kudeaketa sistema orokorrean integratzeko eta laneko arriskuen prebentziorako politika ezartzeko tresna gisa prestatu da. Prebentzioaren integrazioa lortzeko bitarteko bat da, hau da, UPV/EHUn plana ezartzearen emaitza izango den prebentzio sistema finkatzeko.

## 1.2. Helburuak

UPV/EHUK goi mailako irakaskuntza eskaintzen du irakaskuntzaren, ikerketaren, ikasketaren eta kultur eta unibertsitate hedakuntzaren bidez eta ondorengo garrantziaz jabetzen da:

- Bere baitan babes maila handia bermatzea bere jardueren ondoriozko arriskuen aurrean eta unibertsitateko kide guztien segurtasun eta osasun baldintzak hobetzea.
- Erakunde akademiko hau osatzen duten antolamolde ezberdinen hierarkia maila ezberdinetan prebentzio politika koherentea, koordinatua, eraginkorra eta integratua faboratzea.
- Laneko segurtasuna eta osasuna bere prozeduretan, sistemetan eta antolakuntzan faktore sinergiko gisa barneratzea, horrela, bere xedeak lortzen eta, goi mailako irakaskuntzako zerbitzu publiko gisa, bere funtzionamendua hobetzen laguntzeko.
- Arlo honetan egin beharreko jardun guztien ildo nagusiak bilduko dituen esparrua ezartzea.

Horren ondorioz, UPV/EHUK ondorengo printzipioei jarraitzen die eta ondorengo konpromisoak ditu unibertsitateko kideekin:

1. Laneko arriskuen prebentzioa betebeharrak eta eskakizun etiko, legal eta soziala da, antolakuntza modernizatu eta hobetzeko beste elementu bat bailitzan, Unibertsitateko jardueretako bakoitzean eta bere hierarkia maila guztien jardunean integratu beharrekoa.
2. Arriskuen prebentziorako unibertsitateko kide guztiek inplikatu behar dute.
3. Errektoreari dagokio, erakundearen arduradun nagusia den heinean, prebentzio politika zuzentzea eta Unibertsitatean prebentzioa integratu eta sustatzeko beharrezko lidergoa bere gain hartzea.

4. Unibertsitateak prebentzio jarduerak garatzeko beharrezko giza baliabi-deak eta baliabide materialak izango ditu.
5. Unibertsitateko jarduera guztien arduradunek eta sustatzaileek beharrezko lidergoan jardungo dute aipatu jarduerak segurtasun, osasun eta ingurumen babeseko baldintza egokietan gara daitezen.
6. Unibertsitateak prebentzio arloko prestakuntza eta informazioa bermatuko ditu, baita unibertsitateko kide guztien partaidetza ere horiengan eragina izan dezaketen segurtasunari lotutako alderdi guztietan.
7. Berekin arriskua ekar dezaketen unibertsitateko jarduera guztiek prebentzio kontroleko mekanismoak ezarriko dituzte beren diseinu eta garapenean.
8. Prebentzio politikak erakundearen kalitate, ingurumen eta giza baliabideen politikarekin bat etorri beharko du eta horrekin integratuta egon. Auditoretzak egin edo beste kontrol neurri batzuk finkatuko dira prebentzio politika Unibertsitatearen kudeaketa maila ezberdinetan ezarri dela egiaztatzeko.
9. Unibertsitateko kide guztien betebeharra izango da prebentzio politikaren printzipioak betetzea eta zabaltzea.

## UPV/EHUren identifikazioa

---

### 2.1. UPV/EHUren antolakuntza

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) zuzenbide publikoko erakundea da, gizartearen zerbitzura dagoena. Erakunde autonomiaduna da, nortasun eta ahalmen juridikoak dauzkana, bai eta ondare propioa ere. Goi mailako irakaskuntza eskaintzen du, bere eskumenen eremuan, honako hauen bitartez: irakaskuntza, ikerketa, ikasketa, kultur eta unibertsitate hedakuntza, eta bere jardueren oinarri diren gestio prozesuak eta zerbitzuak. UPV/EHUK bere gain hartzen du zerbitzu horien kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko konpromisoa. Bestalde, euskal gizartearen premiei erantzungo die, bai eta historiak eta aldaketa sozioekonomiko, politiko eta kulturalak ekarritakoei ere. Kultura eta zientzia unibertsalaren jakintza ere zabalduko du gizartean, eta euskara eta euskal kultura bultzatuko ditu bereziki.

UPV/EHU hainbat campusetan dago banatuta. UPV/EHUK, jarduerak aurrera eramatean, honako printzipio hauek hartuko ditu aintzat: legezketasuna, eraginkortasuna, eragimena, gardentasuna, kalitatea eta zerbitzu hobea eskaintzea gizarteari eta unibertsitateko kideei. UPV/EHU modu deszentralizatuan dago antolatuta eta eginkizunak ere banatuta dauzka. Bestalde, aurrera eramango dituen zereginetara egokituko du bere egitura, eta etengabe eguneratuko da.

Hauek dira UPV/EHUren helburuak:

- a) Jakintza sortu, kritikatu eta zabaltzea eta jakintzaren aurrerabidea eta gizartearen garapena sustatzea, oinarrizko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren bitartez eta ikerketaren emaitzak gizarteratzearen bidez.
- b) Euskal gizartearen ondare intelektual, kultural eta zientifikoa aberasteko lanetan parte hartzea, bai eta garapen ekonomikoan eta gizarte ongizatean ere.
- c) Kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen heziketa osoa bultzatzea, eta lanean hasteko beharrezkoa den prestaketa ziurtatzea.

- d)** Euskararen garapena eta normalizazioa indartzea, bere eskumenen eremuan.
- e)** Profesionalen etengabeko prestakuntza eta goi mailako irakaskuntza eskatzen duten gizarteko beste taldeen etengabeko prestakuntza edo bizitzan zeharrekoa sustatzea.
- f)** Unibertsitate zabalkuntza eta hedakuntza bultzatzea, batez ere gizarte eta kultur mailen arteko aldeak gutxitzera zuzenduak, bai eta bizitza politiko, kultural eta sozialean hobeto parte hartzeko baldintzak sortzera zuzenduak ere.
- g)** Nazioarteko trukea eta lankidetzaren indartzea, bereziki Europako esparruan eta garapenerako lankidetzaren alorrean.
- h)** Harremanak izatea eta hitzarmenak egitea erakunde publiko eta pribatuekin, UPV/EHUko tituludunen prestaketa hobea izan dadin eta, ondorioz, lanean hasteko aukera gehiago izan dezaten.

UPV/EHUK honako hauek sustatuko ditu:

- Unibertsitateko kide guztien errealizazio pertsonal eta profesionalerako bidea eskainiko duten baldintzak.
- Ezintasunak dauzkaten pertsonak unibertsitateko kideen artean izatea.
- Justizian eta askatasunean oinarritutako elkarbizitza, eta euskal gizartearen garapen jasangarri, baketsu eta bidezkoa.
- Mundura irekitako jarduera plural, tolerantia eta solidarioa, aitzindari intelektual eta etikoa izateko bokazioaz.

UPV/EHUK bere kide guztien berdintasuna bermatuko du, eta ez du inor diskriminatuko arrazoi hauengatik: jatorria, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako baldintza pertsonal edo sozialen bat.

Agiri hau onartzean UPV/EHUK dituen zifrak 1. ERANSKINEAN ageri dira.

## **2.2. Prebentzioaren antolakuntza**

### **Prebentzio zerbitzua**

Prebentzio zerbitzuak prebentzioaren arloko zeregina betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialez osatuta daude, horien bidez unibertsitateko kideei babesa emateko segurtasun eta osasunaren arloan. Zeregin horiei jarraituz, aholku eta laguntza emango diete enpresaburuei, langileei,

horien ordezkarietara eta espezializatutako ordezkarietara organoetara (LAPLaren 31.2 artikulua).

Aurrekoan oinarrituta, UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua prebentzio zerbitzu propio gisa eratu da errektorearen 2003ko apirilaren 7ko Ebazpenaren bidez (honek **UPV/EHUren beraren prebentzio zerbitzua eratu eta antolatzen du eta zerbitzuaren funtzionamendua zehazten du**).

Prebentzio Zerbitzuak UPV/EHUko langile guztiei eragiten die.

Prebentzio Zerbitzua bi arlotan banatuta dago: Osasun Arloa eta Arlo Teknikoa. Zerbitzuan, beraz, alor desberdinetakoak arituko dira, baina elkarlanean aritu beharko dira urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzekoak, 15. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

Osasun Arloaren zereginak laneko osasun, ergonomia eta psikosoziologia aplikatuarekin lotutako espezialitateei dagozkienak izango dira.

Arlo Teknikoan unibertsitateko goi mailako lau tituludun arituko dira. Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuko VI. kapituluan jasotakoarekin bat, prestakuntza egokia izan beharko dute goi mailako eginkizunak betetzeko prebentzioko berezitasun eta diziplinaren arloan, laneko segurtasun eta industri higienera dagokionean, hain zuzen.

## Campuseko eta Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordea

Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea kide anitzeko organo paritarioa da, UPV/EHUko arriskuen prebentzioari buruzko plan, programa eta ebaluazioen inguruan aldiro-aldiro proposamenak eta kontsultak egiteko batetik, eta segurtasun eta osasun politika egokia antolatu, zaindu eta hobetzeko bestetik. Batzorde hori da UPV/EHUko funtzionarioen lan baldintzak arautzeko akordioan eta lan kontratua duten UPV/EHUko langileen hitzarmen kolektiboan aipatzen dena.

Segurtasun eta Osasun Batzordearen zereginak legeria aplikagarria daude, eta baita funtzionarioen lan baldintzak arautzeko akordioan eta lan kontratua duten langileen hitzarmen kolektiboan.

UPV/EHU hiru campusetan banatuta dagoenez —bana egungo Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako bakoitzean—, bidezkoa da campusetako bakoitzean segurtasun eta osasun batzorde bat sortzea, baita Campus Arteko Batzordea ere campus bati baino gehiagori eragiten dion prebentzio arloko jarduerak koordina ditzan.

Campusetako batzordeen lurralde eskumenak campusetako bakoitzeko ikastegi guztiei eragingo die.

Agiri hau onartzean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako campusetako segurtasun eta osasun batzordeek eta UPV/EHUko Campus Arteko Batzordeak dituzten araudiak 2. ERANSKINEAN daude.

## Erantzukizunak eta eginkizunak

---

Laneko arriskuen prebentzioa behar bezala integratzeko, beharrezkoa da prebentzioaren kudeaketa egiturak garatu beharreko erantzukizunak eta eginkizunak zehaztea. Hala ere, Euskal Herriko Unibertsitateak egitura konplexua du, unibertsitateko organo eta egitura ugari baititu: gobernu organoak, ikastegiak, sailak, institutuak, unibertsitateko zerbitzuak, administrazio zerbitzuak, etab. Horiek guztiek egituraren ikuspegitik dituzten berezitasunak eta ezaugarriak aldatu egiten dira burutzen dituzten jardueren arabera eta, ondorioz, horrek aipatu zeregina zailtzen du.

Jarraian, unibertsitateko antolakuntza maila ezberdinek laneko segurtasun eta osasun arloan dituzten eginkizunak, erantzukizunak, eskubideak eta bete-beharrak biltzen dira.

### Gobernu Kontseilua

Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana onartzen du, baita honen aldaketak ere.

### Errektorea

Laneko arriskuen prebentzio politika Unibertsitatean antolatu, garatu eta betearazteko arduradun nagusia da.

### Zuzendaritza Kontseilua

Errektoreordeek gerentziarekin zehaztuko dute, beren eskumenen esparruan, zenbat jardun jotzen dituzten egokitzat laneko segurtasun eta osasun arloko eta ingurumen arloko baldintzak hobetze aldera.



## Gerentea

Unibertsitatean garatzen den prebentzio jardueraren kudeaketaz arduratzen da.

## Segurtasun eta osasun batzordeak

Campusetako eta campus arteko segurtasun eta osasun batzordeak kide anitzeko organo paritarioak dira, erakundeak laneko arriskuen prebentzioari buruz garatzen dituen jardueren inguruan aldiro-aldiro kontsultak egiteko. Horren eraketa eta funtzionamendua 31/95 Legearen (LAPL) 38., 39. eta 40. artikuluetan jasotzen da, baita UPV/EHUko langileei aplikagarri zaizkien akordioari eta hitzarmenei ere.

## Prebentzio Zerbitzua

UPV/EHUren beraren Prebentzio Zerbitzua 31/95 Legeak, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoak, 39/1997 Errege Dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duenak, eta errektorearen 2003ko apirilaren 7ko Ebazpenak, UPV/EHUren beraren prebentzio zerbitzua eratu eta antolatu eta zerbitzuaren funtzionamendua zehazten duenak, diotenaren arabera antolatuta dago.

## Prebentzioko ordezkariak

Prebentzioko ordezkariak unibertsitateko langileen izenean dihardute prebentzio arloan eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko arautegian jasotako eskumenak eta eskubideak izango dituzte.

## Ikastegietako zuzendariak

Dekanoak edo zuzendariak, ikastegiko arduradun nagusia den heinean, bere ikastegiko jarduera guztiak zuzendu, koordinatu, gainbegiratu eta sustatu behar ditu, baita dagokion errektoreordetzaren edo gerentziaren arauak aplikatu ere. Horrez gain, unibertsitateko edozein eratako egituretako arduradunekin batera jarduten du laneko arriskuen prebentzio arloko arauak gainbegiratzen eta aplikatzen.

Ikastegiko zuzendaritzak ikastegiko batzordea sortzea erabaki ahal izango du. Batzorde horren eginkizuna ikastegiak laneko arriskuen prebentzio arloan

duen politika koordinatzea eta dekanotzari edo zuzendaritzari egoki irizten dituen neurriak proposatzea izango da.

### **Autobabeserako Batzordea**

Larrialdi egoerei buruzko arautegian ezarritako Autobabeserako Batzordeak eraikineko arduraduna izango du buru eta bere xedea kasuan kasuko autobabeserako planak ezartzea da.

Horren osaera eraikineko larrialdi planak zehaztuko du.

### **Eraikinetako administratzaile arduradunak**

Eraikinaren kudeaketaz arduratzen direnez, laneko arriskuen prebentzio arloko jarduerak kudeatzen dituzte eta horiek ondo betetzen direla egiaztatzen dute, Prebentzio Zerbitzuarekin elkarlanean, betiere, beren eskumenen eremuan.

### **Sailetako, institutueta eta gainerako egituretako zuzendaritza**

Saileko edota institutuko zuzendariak eta unibertsitate egituretako gainerako arduradunek hartuko dituzte zuzenean beren gain laneko arriskuen prebentziorako politika ikerketan, irakaskuntzan eta beren eskumenen eremuko beste arlo batzuetan aplikatzeko lanak, kokaleku duten ikastegiko edo eraikineko zuzendariarekin batera.

### **Unibertsitateko zerbitzuen arduradunak**

Unibertsitateko zerbitzuen arduradunek beren gain hartuko dituzte dagozkien eskumenen eremuan laneko arriskuen prebentzioa ezartzeaz eta unibertsitateko beste arduradun batzuekin batera ari izango dira, dituzten eskumenak aintzat hartuta.

### **Irakasle eta ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak**

Langile hauek laneko arriskuen prebentzio arloan dituzten eskubideak eta betebeharrak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen III. kapi-

tuluan eta UPV/EHuko funtzionarioen lan baldintzak arautzeko akordioak eta lan hitzarmen ezberdinek biltzen dituzten beste xedapen batzuetan aipatutakoak dira.

Irakasle eta ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak arduratuko dira beren eskumenen eremuan laneko arriskuen prebentzioa ezartzeaz.

## **Ikasleak eta unibertsitateko beste pertsona edo erabiltzaile batzuk**

Ikasleen eta unibertsitateko gainerako pertsona edo erabiltzaileen bete-beharra da beren segurtasuna eta osasuna zaintzea, ezarritako prebentzio neurriak, prozedurak eta jarraibideak betez.

\* \* \*

Azkenik, arau orokor gisa, beharrezkoa da honako hau kontuan izatea:

- Zuzeneko erantzukizun pertsonala izango dute nola beren eskumenen eremuan hala horretatik kanpo jarduerak burutu edo erabakiak hartzen dituztenek, baldin eta jarduera edo erabaki horiek pertsonen eta/edo gauzen segurtasunerako arriskua badute edo izan badezakete, eta/edo norberaren edo hirugarrenen osasunerako arriskua badakarte.
- Zuzeneko erantzukizun pertsonala izango dute pertsonen nahiz gauzen segurtasunerako edota norberaren nahiz hirugarrenen osasunerako bistako arriskua saiheste aldera beren eskumenen eremuan beharrezko neurriak hartu ez dituztenek. Baliabide ekonomikorik ez izatearen ondorioz aipatu arriskua saihestu edo murriztu ezin denean, arduradun eskudunak Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari eta dagokion segurtasun eta osasun batzordeari jakinaraziko dio.

## Ohiturak, prozedurak eta prozesuak

---

Laneko Arriskuen Prebentziorako Planean oinarrituta prebentzio sistema diseinatu ahal izateko, beharrezkoa da, erakundea osatzen duten organoek zer antolamolde, eginkizun eta erantzukizun dituzten jakiteaz gain, prebentzio ekintza gauzatzeko zer ohitura, prozedura eta prozesu erabiltzen dituzten jakitea ere (LAPLren 16.1 artikulua).

Horretarako, UPV/EHUK zenbait agiri eta eredu estandar finkatuko ditu jarraian aipatzen diren ohitura, prozedura eta prozesuetako bakoitzari buruzko arautegian ezarritakoa garatu eta betetzeko.

### 1. Arriskuen ebaluazioa

*«Laneko arriskuen ebaluazioa saihestu ezin izan diren arriskuen larritasuna zenbatesteko prozesua da. Horren bidez, beharrezko informazioa eskuratzen da enpresaburuak prebentzio neurriak ezartzeko beharrari eta, hala badagokio, ezarri behar den neurri motari buruzko erabaki egokia hartu ahal izateko» (Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 3. artikulua).*

Hortaz, arriskuen ebaluazioa Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana kudeatu eta aplikatzeko oinarritzko tresnetako bat da. Hala, beraz, arriskuak hasieran eta aldi behin ebaluatzeko prozedura ezarriko da eta, horren bidez, lantokiko arriskuak edo arrisku faktoreak identifikatu ahal izango dira, ezabatu eta minimizatu ahal izateko. Hartu beharreko prebentzio neurriak lehenetsi ere egingo dira eta bidezko kontrol bitartekoak ezarri ere bai.

*Ondorio horietarako, «laneko arriskua» langile batek lana dela-eta kalte jakin bat jasateko aukera da (LAPLren 4.2 artikulua).*

Ebaluazio horren lehenengo urratsa egoeraren diagnostikoa egitea izango da, arrisku egoerak identifikatu eta, ahal den neurrian, saihesteko. Arriskua

ezabatzea izango da prebentzioaren helburu nagusia. Bigarren urratsa saihestu ezin izan daitezkeen arriskuak ebaluatzea izango da.

Arriskuen ebaluazioa diziplina anitzen ikuspegitik egingo da eta, beraz, lan baldintzen baterako balorazioan, eragina duten faktore ezberdinak sartuko dira.

Ebaluazio metodoak ahalik eta malguena izan behar du, arrisku guztiak kontuan har daitezzen, baita ondo ezagutzen ez direnak ere.

Arriskuak ebaluatzeko prozesuari buruzko txostena egingo da.

## 2. Norbera babesteko ekipamendua (NBE)

**Norbera babesteko ekipamendua** (NBE) langileak daraman edozein ekipamendu izango da, betiere, horrek lanean bere *segurtasunari* edo *osasunari* eragin diezaiokeen arriskuren batetik babesten badu. Norbera babesteko ekipamendua izango da, halaber, aipatu xederako edozein osagarri ere.

Beharrezkoa noiz den zehazteko, lanpostu ezberdinetan dauden arrisku egoerak aztertuko dira. Une horretan arriskua murrizteko bide bakarra norbera babesteko elementuren bat erabiltzea dela ondorioztatu ondoren, lanpostu horretan diharduten langileei halako ekipamendua emango zaie. Ahal den neurrian, segurtasuna eta erosotasun baldintzarik onenak uztartzeko ahaleginak egingo dira eta, kasu guztietan, indarrean dagoen legeria beteko da. Ekipamendu berria emateko eta erabilitako babes ekipamendua garbitu, mantendu, bildu eta kudeatzeko arauak ezarriko dira. Zenbateko maiztasunarekin erabiltzen den ikusteko bide egokiak zehaztuko dira.

## 3. Segurtasun ikuskapenak

Segurtasuna ikuskatzea edo lan baldintzak aldizka berrikustea teknika analitikoa da eta, horren bidez, instalazioen egoera fisikoa eta lanpostuetako jardunak azter daitezke, arrazoi tekniko edo materialek eta giza arrazoiek eragindako arriskuak hautemate aldera. Prebentzio integratuko antolakuntza sistema baten barruan, ikuskatzaileak edo arduradunak istripurik gertatu aurretik aplikatu dezakeen teknika analitikorik erabiliena, errazena eta eraginkorrena da. Nagusiki, zereginak prestatzerakoan aurreikusi ez ziren arazoak, ekipamendu eta instalazioen gabeziak, jardun arriskutsuak, lan metodoetako aldaketak eta aurretik ezarritako neurri zuzentzaileen egoera hauteman daitezke.

Hortaz, oinarrizko tresna dira arrisku egoerak hauteman eta kontrolatzeko eta instalazioetara aldizka edo ausaz bitak egitean datza, pertsoneri, instalazioei edo UPV/EHUren irudiari kaltea eragin diezaieketen egoera edo ekintza ez seguruak detektatzeko. Zeregin horretarako arduradunak izendatuko dira berariaz.

#### 4. Prebentzio neurrien jarraipena

Prebentzio neurriak lanaren ondorioz kalterik ez sortzeko garatzen diren jardunen multzoa dira.

Prebentzio neurriak aplikatzeko oinarrizko printzipioak arriskuak jatorrian, hau da, **sorgunean**, ezabatu behar direla dio. Alabaina, hori ez da kasu guztietan posible, eta ez da posible, ezta ere, horien larritasuna eragiketa edo antolakuntza tekniken bidez murriztea. Halakoetan, babes kolektiboko neurriak hartzen dira, langileak oro har eta arriskua dagoenean ager litezkeen hirugarrenak babesteko.

Babes kolektiboko neurriak hartu ondoren langileek istripua izateko arriskua baldin badago oraindik ere, horiei kasu zehatz bakoitzean beharrezkoa den norbera babesteko ekipamendua emango zaie.

Hortaz, Arriskuen Prebentziorako Plana garatzeko, prebentzio neurrien jarraipena eta kontrola egiteko sistematika ezarri behar da.

#### 5. Larrialdien kudeaketa

Bere tamaina eta jarduera aintzat hartuta, eta bertan erakundeaz kanpoko pertsonak egon daitezkeela ere kontuan izanda, UPV/EHUK larrialdi egoera posibleak aztertu beharko ditu eta beharrezko neurriak ezarri lehen laguntza, suteen aurkako borroka eta langile eta erabiltzaileen ebakuazioa direla eta. Horretarako, neurri horiez arduratuko diren langileak izendatuko ditu eta, hala dagokio, dena ondo doala egiaztatuko du aldiaren behin. Langile horiek prestakuntza egokia izan behar dute, horien kopuruak nahikoa izan behar du eta material egokia izan behar dute, arestian aipatutako baldintzen arabera (LAPLren 20. artikulua).

Hortaz, UPV/EHUK larrialdiren bat sortuz gero instalazioen barruan hartu beharreko neurri posibleak ezarriko ditu. Horretarako, larrialdiak gertatzeko arriskuak eta horiek pertsonengan, instalazioetan eta ingurunean izan ditzaketen ondorioak aztertuko ditu.

## 6. Istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen ikerketa

Istripuak, gorabeherak eta laneko gaixotasunak ikertzearen helburua horien arrazoiak aztertzea eta berriro gerta daitezzen eragozte da. Zeregin horretan, gertakariak definitzea eta eragin zituzten oinarritzko zioak ezartzea ahalbidetzen duten datuak biltzen dira eta, ondoren, halako egoerarako bidezkoak diren neurriak hartzen dira.

Oso prebentzio tresna erabilgarria da eta arriskuen ebaluazioan azaleratu ez diren edo, neurri zuzentzaileak nahikoak ez eta desagertu ez diren arrisku egoerak hautematen laguntzen du. Horretarako, gertatu diren istripuen aldizkako analisi estatistikoak egingo dira; gertatzen diren istripuen, gorabeheren eta laneko gaixotasunen berri emateko eta, hala badagokio, horiek ikertzeko jardun metodoa ezarriko da; istripuei, gorabeherari eta laneko gaixotasunei buruzko informazioa eta ikerketa sistematizatuko dira; horiek eragin zituzten arrazoiak zehaztuko dira; eta berriro gerta daitezzen saihesteko bitarteko guztiak jarriko dira.

## 7. Arrisku larri eta berehalakoa

*Laneko arrisku larri eta berehalakoa* izango da, ikuspegi arrazionaletik begiratuta, etorkizun hurbilean gerta daitekeena eta langileen osasunari kalte larria eragin diezaikeena.

Langileen osasunari kalte larria ekar diezaioketen agenteen eraginpean egonez gero, arrisku larri eta berehalakotzat joko da, ikuspegi arrazionaletik begiratuta, etorkizun hurbilean aipatu agenteen eraginpean izateko egoeraren bat gertatu ahal izatea, betiere, egoera horrek osasunari kalte larria ekar badiezaioke, kaltea berehala agertu ez arren (LAPLren 4.4 art.).

UPV/EHUK bertan ager daitezkeen eta, beren izaera eta arriskua dela medio, arrisku larri eta berehalakotzat jotzen diren arriskuak prebentzio arloan kudeatzeko metodologia definituko du.

## 8. Osasunaren zaintza

**Osasunaren zaintza** osasun asaldurak, batez ere lanari lotutakoak, aurrez hautematea helburu duten jardueren multzoa da. Zeregin hori banakoari nahiz taldeari buruzko informazioa modu sistematikoan biltzeko eta aztertzeko prozeduren bidez gauzatzen da.

Osasunaren banakako zaintza (zaintza medikoa edo sanitarioa ere deitua) proba eta prozedura medikoak aplikatzean datza, lanak zer kalte eragin izan ditzakeen eta lantokian etimologikoki kasu bakoitzarekin erlazioatutako faktore-rik ba ote dagoen hautemateko.

Osasunaren zaintza kolektiboari esker, langileen osasun egoera, gaixotasunen eta heriotzen maiztasuna eta larritasuna eta horiek neurtzeko tasen joera ikus daitezke, arriskuarekiko kausa-efektu erlazioa ezarri eta arriskua identifika daiteke, osasun arloko prebentzio eta sustapenerako proposamenak zehaztu eta lehenetsi daitezke eta horiek aplikatzearen emaitzak ebalua daitezke.

Hortaz, osasunaren zaintzak UPV/EHUko langileen osasun egoera baloratu du, arrisku egoera posibleen inguruan ohartaraziko du eta Prebentzio Plana ebaluatuko du.

## **9. Produktuak erostea**

Produktuen segurtasun arautegiak erregulatzen ditu produktuek merkatu-ratu ahal izateko bete behar dituzten baldintzak. Hainbat eratako ekipamendua barne hartzen duten arau espezifikoak daude: makinak, presiopeko tresnak, ga-sezko tresnak, atmosfera leherkorretan erabiltzeko tresnak eta sistemak, material elektrikoak, norbera babesteko ekipamendua, etab.

Oro har, ondorengoak eskatzen dira: ekipamendu horiek CE markako etike-tak izatea, «arautegi aplikagarriarekiko bat etortze adierazpena» eta eskuliburua (dagokion hizkuntzan idatzia). Azken honetan, ekipamendua erabiltzeak era-gin ditzakeen arriskuei buruzko informazioa eta aipatu arriskuak saihesteko edo kontrolatzeko nola instalatu, erabili edo mantendu behar diren azaltzen duten jarraibideak bilduko dira.

Bestalde, produktu kimikoak gai eta prestakin arriskutsuak sailkatu, ontzirat-u eta etiketatzeari buruzko arauak erregulatzen dituzte. Funtsezkoa da produktu horiek legez eskatzen diren etiketak izatea, baita «segurtasun datuen fitxa» ere (honen edukia arauetan jasota dator argi eta garbi).

Segurtasunari buruzko arautegi espezifikorik ez duten merkaturatutako pro-duktoei produktuen segurtasun orokorrari buruzko abenduaren 26ko 1801/2003 Errege Dekretua aplikatzen zaie.

Azken batean, erosketak direla eta, funtsezkotzat jotzen da, arriskutsuak izan daitezkeen ekipamendu edo produktuei dagokienez behintzat, ekipamen-



du edo produktu mota jakin bat erosteko ardura orokorra duten unibertsitateko zerbitzuen eginkizunak besteak beste ondorengoak izatea:

- Aipatu ekipamenduak edo produktuak aplikagarri zaion arautegia betetzen duela ziurtatze aldera zerbitzu horiek egin beharrekoak,
- Ekipamenduak edo produktuak segurtasunari buruz dagokion informazioa dakarrela frogatzearekin erlazionatutakoak, eta
- Informazio hori Prebentzio Zerbitzuari eta/edo erabili behar duten unitate edo sailei bidaltzea.

## 10. Prestakuntza

Babesteko betebeharra betez, UPV/EHUK berme eman behar du langile orok prebentzio arloan prestakuntza teoriko eta praktikoa nahikoa eta egokia izan dezan, bai kontratatzen denean (kontratu mota edo kontratuaren iraupena edozein direla ere) bai dituen eginkizunetan aldaketak gertatzen direnean edo lan ekipamenduetan teknologia berriak edo aldaketak barneratzen direnean.

Prestakuntzak berariaz langile bakoitzaren lanpostuan jarri behar du arreta, arriskuen bilakaerara eta arrisku berrien sorrerara moldatu behar du eta, beharrezkoa izanez gero, aldian behin errepikatu behar du (LAPLren 19. art.).

Prestakuntzak prebentzioaren kulturari buruzko informazioa eta oinarriak eman nahi ditu jokabidea aldatuta eta abilezia egokiak garatuta.

Prebentzio arloko prestakuntza beharrezkoa den prestakuntza tekniko profesionalari lotuta egongo da eta UPV/EHUko Prestakuntza Plan Orokorraren parte izango da.

## 11. Enpresa jardueren koordinazioa

Prozedura honen helburua kanpo enpresekin kontratatutako lanen gaineko kontrola hobetzea da, UPV/EHUko bertako langileen eta instalazioen segurtasuna bermatzearen, baina baita kontratatutako langileen segurtasuna bermatzearen ere, 171/04 ED eta 1627/97 ED betez.

UPV/EHUn unibertsitateaz kanpoko pertsonaren bat lanean egonez gero, hark laneko arriskuen prebentzioari buruzko arautegia aplikatzen lagunduko

dio kontratatutako enpresari. Xede horretarako, laneko arriskuen gaineko babesari eta horien prebentzioari buruz beharrezkoak diren koordinazio bitartekoak ezarriko dituzte eta beren langileei arrisku horien inguruko informazioa helaraziko diete.

UPV/EHUK bidezko neurriak hartuko ditu bere baitan jarduerak burutzen dituzten enpresaburuek lantokian dauden arriskuei eta dagozkion babes eta prebentzio neurriei buruzko informazio eta jarraibide egokiak jaso ditzaten, baita aplikatu beharreko larrialdi neurriei buruzko informazioa eta jarraibideak ere. Hori guztia langileei helaraziko diete enpresaburuek.

Enpresek beste enpresa batzuk kontratatu edo azpikontratatzan badituzte horien jarduerari dagozkion lanak edo zerbitzuak egiteko eta lan edo zerbitzu horiek haien lantokietan eskaintzen badira, kontratista eta azpikontratista horiek laneko arriskuen prebentzioari buruzko arautegia betetzen dutela zaindu beharko da (LAPLren 24. art.).

## **12. Obra proiektuetako segurtasuna eta osasuna**

Prozedura honen helburua laneko arriskuen prebentzioa UPV/EHUko erai-kinak eta instalazioak egin eta aldatzeko proiektuetan edo aurreproiektuetan integratzea da, 1627/1997 EDk jasotzen duenaren arabera. Proiektuan prebentzioa aplikatuta, eraikuntza edo aldaketa lanei ekin aurretik prebentzio neurriak hartzen dira eta, horrela, ondoren zuzentze jardunak egitea saihesten da, are garestiagoak izan ohi direnak eta, askotan, gauzatzeko zailak.

Prozedura hau UPV/EHUn eraikin edo instalazio berriak egin edo lehengoak aldatzeko proiektu edo aurreproiektu guztiei aplikatuko zaie, bai obra proiektu teknikoa behar dutenei bai behar ez dutenei.

## **13. Ikerketa eta irakaskuntza jardueretako prebentzioa**

Ikerketa proiektuak programatzerakoan eta gauzatzerakoan kontuan hartu beharko dira burutu beharreko jarduerari lotutako arriskuak eta ezarriko diren prebentzio neurriak. Arreta berezia jarriko da arrisku faktore larrienetan. Halaxe jokatu da irakats jardueraren garapenean ere.

Proiektuko ikertzaile nagusia arduratuko da proiektuari lotutako arriskuak minimizatzeke beharrezko neurriak hartzeaz.

Ikerketa taldeko kideek ikerketa jardueraren garapenari lotutako arriskuak ezagutu beharko dituzte eta ikerketa proiektua edo kontratua garatzerakoan beren lan esparruan pertsonen edo gauzen segurtasunari lotuta gerta daitekeen edozein gorabeheraren berri eman beharko diote ikertzaile nagusiari.

## **14. Komunikazioa eta informazioa**

Informatzea zerbaiten berri ematea izango da. Komunikatzea kanal ezberdinen bidez informazio interaktiboa transferitzeko prozesua izango da.

Horrela, antolakuntza maila ezberdin arteko komunikazioaren eta informazioaren bidez edozein lan behar bezala egitea eta, beraz, lanpostuetako segurtasun eta osasun maila egokia izatea lortzen da.

Atal hau garatzerakoan beharrezkoa izango da komunikazio eta informazio bide arin eta unibertsalak ezartzea.

## **15. Auditoretza**

Auditoretza enpresaren laneko arriskuen prebentziorako sistemaren irudi zehatza islatzea helburu duen kudeaketa tresna da. Horretarako, sistemaren eraginkortasuna baloratzen du eta indarrean dagoen arautegiaren urratzeak eragin ditzaketen gabeziak detektatzen ditu, sistema hobetzerantz zuzendutako erabakiak hartzearen (Prebentzio Zerbitzuaren Araudiko 30.1 artikulua). UPV/EHUren kasuan, kanpo auditoretza OSALANek egin behar du.

## Prebentzioaren plangintza

---

Prebentzio jardueraren plangintza eta laneko arriskuen ebaluazioa funtsezkoak dira arriskuen prebentziorako plana kudeatzeko eta aplikatzeko. Horiek faseka egin ahal izango dira, ondo programatuta (III. kapitulua, LAPLren 16.2 artikulua).

Prebentzio jarduera prozesu dinamikoa da eta, beraren bidez (horien hasierako identifikazioaren/ebaluazioaren emaitzetan oinarrituta), erakundeko arriskuei buruzko informazioa eguneratuta izan eta arian-arian hobetu nahi da.

Hortaz, prebentzioaren plangintza prebentzio jardun multzo baten sistematizazioa dela esan daiteke. Jardun horiek denbora tarte jakin batean garatu behar dira, aurrez ezarritako lehentasun ordenari jarraiki, laneko arriskuak ezabatu edo murrizteko eta kontrolatzeko asmoz. Neurri eta jarduera multzo honen inguruan plangintza orokorra egin behar da (hala badagokio, lehentasunak ere ezarrita). Plangintza hori urteko programen bidez egin ohi da, baita jarraipen egokia eginda ere, planifikatutakoa ondo gauzatzen ari dela egiaztatzearen.

## Prebentzioaren jarraipena

---

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak gordeko du prebentzioaren kudeaketa sistemako prozedura ezberdinek sortzen duten dokumentazioa eta honen jarraipena egingo du, kasuan kasu burutu beharreko ekintzak aurrera doazela bermatzeko.

Prebentzio neurrien jarraipena eta egiaztapena egitearen emaitzek prebentzio sisteman hobekuntzarik edo aldaketarik egin behar den adieraziko dute, sistema eraginkorra ez dela edo hobetu egin behar dela ikusiz gero. Gorabehera edo kalteren bat gertatu eta lan baldintzen kontrolak egitean, funtsezko aldaketaren bat izango dela aurreikustean edo LAPLren 30.6 artikuluan aipatzen diren auditoretzak egitearen ondorioz jar daiteke agerian hori.

Ondorioz, prebentzio jarduerak aldatu egin beharko dira UPV/EHUK, prebentzio sisteman ezarritako aldizkako kontrolak egitearen ondorioz, finkatutako babes helburuetarako desegokiak direla hautematen badu.

\* \* \*

Laneko arriskuen prebentzio arloko errektoreorde eskudunak, Prebentzio Zerbitzuak egindako proposamena aintzat hartuta eta, hala badagokio, Prebentzioko ordezkariari edo dagokion segurtasun eta osasun batzordeari kontsulta egin ondoren, beharrezkotzat jotzen duen beste jarraibide emango ditu plan hau garatu, ezarri eta sustatzeko. Plana onartuta dagoela, eskumenak Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako errektoreordeak ditu bere gain.

Bertan ezarri ez den guztian, laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak aplikatuko dira, baita aplikagarri diren araubide juridikoko eta administrazio prozedura erkideko arauak ere, unibertsitateari buruzko legerian ezarritako antolakuntzako egiturara eta prozedura berezietara behar bezala moldatu ondoren.

# 1. eranskina

UPV/EHuren Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana onartzean, hauek dira bere oinarritzko antolamoldeari, azpiegiturei eta zerbitzuei buruzko datuak eta unibertsitateko kideak:

<b>Unibertsitatearen egitura</b>	
Unibertsitateko campusen kopurua	3
Fakultateen eta goi eskola teknikoen kopurua	16
Unibertsitate eskolen eta unibertsitate eskola teknikoen kopurua	15
Sail kopurua	108

<b>Azpiegiturak eta zerbitzuak</b>	
Azalera eraikia (m <sup>2</sup> -tan)	648.390
Eraikinak	58

<b>Giza baliabideak</b>	
Bizkaiko Campusa	3.319
Gipuzkoako Campusa	1.312
Arabako Campusa	891
Guztira	5.522

<b>Ikasleak</b>	
	41.466

## 2. eranskina

---

### **Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusetako Segurtasun eta Osasun Batzordearen Funtzionamendu arautegia**

#### **1. artikulua. *Definizioa eta osaera***

Segurtasun eta Osasun Batzordea kide anitzek osatutako organo parekidea da, UPV/EHUko langile funtzionarioen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenean eta lan-kontratudun langileen Hitzarmen Kolektiboan aipatua. Hauek dira bere helburuak: erakunde publikoetan arriskuei aurrea hartzearen inguruko planen, programen eta ebaluazioaren gaineko kontsultak eta proposamenak egitea aldiro eta erregularitasunez; eta, baita ere, segurtasun eta osasunaren alorrean politika egokia egiten dela edo politika hori hobetzen dela zaintzea.

Hamabi kidek osatuko dute batzordea. Horietako sei administrazioak izendatuko ditu, eta bat batzordeko burua izango da eta beste bat idazkaria; beste seiak erakunde sindikalek izendatutako prebentzioko ordezkariak izango dira (sindikatu bakoitzeko ordezkari bat).

Batzordearen aginpidea campusean dauden ikastegi guztietara zabalduko da.

#### **2. artikulua. *Eginkizunak***

Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordearen eginkizunak dira legeria aplikagarrian xedatutakoak, bai eta langile funtzionarioen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenean eta lan-kontratudun langileen Hitzarmen Kolektiboan jasotakoak ere. Era berean, Campusarteko Segurtasun eta Osasun Batzordeak emandako irizpideei jarraituko die.

### 3. artikulua. *Batzordeko burua*

Hauek dira batzordeko buruaren eginkizunak:

- a) Batzordearen bileretarako deia egitea, bileretako buru izatea eta bilerak zuzentzea; eta bileretan aztertuko diren gaiak zehaztea, batzordeko beste kideen proposamenak ere onartuta, halakorik egonez gero.
- b) Batzordeak hartutako erabakiak tramitatzeko beharrezkoak diren neurriak betearaztea.
- c) Batzordeko kideek lana egiteko beharrezko izan ditzaketen dokumentu, aurrekari eta txostenak euren esku jartzea.
- d) Batzordearen zereginak koordinatzea eta, oro har, batzordeak behar bezala funtziona dezan beharrezkoak diren neurriak hartzea.

Batzordeko burua ez dagoenean, administrazioak izendatutako kideen artetik nagusienak beteko ditu haren zereginak.

### 4. artikulua. *Idazkaria*

Hauek dira idazkariaren eginkizunak:

- a) Batzordearen aztergaiak prestatzea, batzordeko buruak ontzat eman ondoren, eta bileretarako deiak egitea.
- b) Akten eta erabakien ziurtagiriak egitea.
- c) Batzordearen kanpoko eta barruko dokumentuak tramitatu eta zaintzea, eta batzordeari egingo zaizkion kontsultak erantzutea, berari zuzendu beharko baitzaizkio.
- d) Bileren aktak egitea, euskaraz eta gaztelaniaz. Aktetan honako hauek jasoko dira: aztertutako gaiak eta hartutako erabakiak; eta, baita ere, adostu ez diren puntuak, adostasuna ez lortzeko arrazoia zein izan den azalduta.
- e) Hartutako erabakien berri ematea bai Campusarteko Segurtasun eta Osasun Batzordeari bi kasuan kasuko ikastegiei.
- f) Batzordeko kideek batzordeari zuzendutako komunikazio-egintzak jasotzea; hau da, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak eta ezagutu behar dituen gainerako idatziak.

Idazkaria ez dagoenean, administrazioak izendatutako kideen artetik gazteenak beteko ditu haren zereginak.



## **5. artikulua. *Bilerak***

Batzordeak bost ohiko bilera egingo ditu, gutxienez, urtean. Urteko lehen bileran zehaztuko du egutegia, bilerak aldizka egin daitezzen. Ezohiko bilerak ere egin ahal izango dira, batzordeko buruaren ekimenez edo batzordeko hiru kidek edo gehiagok hala eskatuta.

## **6. artikulua. *Deialdia eta aztergaiak***

Batzordearen bilerarako deia batzordeko buruak egingo du edo, agindua ematen badio, idazkariak. Bilera baino lau egun baliodun lehenago eman beharko da deialdiaren berri, bilera ohikoa denean; bilera ezohikoa bada, bi egun lehenago jakinarazi beharko da. Deialdiarekin batera honako hauek bidaliko dira: aurreko bilerako aktaren zirriborroa, aztergaiak, eta aztergai horiei dagozkien dokumentuak.

Batzordeak ez du egingo bilerarik abuztuan, ezta ere baimen-txanda erreku-peratuko egunetan.

Aztergaietan punturen bat sartzea eskatzen duten kideek puntu horri dagozkion dokumentuak aurkeztu beharko dituzte eskaerarekin batera, batzordeko gainerako kideak jakinaren gainean egon daitezzen.

Administrazioaren eta/edo ordezkari sindikalen gehiengoak aukera izango du aztergaietako punturen bat hurrengo bilera baterako uztea eskatzeko, erabakia hartu ahal izateko beharrezkoak diren aurrekariak, dokumentuak edo txostenak aurkeztuak izan daitezzen.

Bilera batean ez badira aztertzen aztergai guztiak, bileraren amaieran zehaztuko da zein egunetan izango duen jarraipena.

## **7. artikulua. *Batzordea eratzeta eta erabakiak hartzea***

Batzordea balioz eratzeko, eta erabakiak hartzeko, administrazioaren bost ordezkari eta erakunde sindikalen beste bost egon beharko dira gutxienez bertan. Lehenengo deialdirako beharrezkoa den quoruma lortuko ez balitz, bigarren deialdia handik eta ordu batera izango da. Batzordea bigarren deialdian balioz eratzeko, alderdi bakoitzeko hiru kide egon beharko dira bertan.

Erabakiak hartzeko, beharrezkoa izango da bileran dauden alderdietako bakoitzak gehiengo soilaz onartzea.

Campuseko Batzordeak hartutako erabaki guztiak Campusarteko Segurtasun eta Osasun Batzordeari eta kasuan kasuko ikastegiei jakinaraziko zaizkie, gehienez ere hamar eguneko epearen barruan. Adierazi egingo da, halaber, zein epetan gauzatuko diren erabakiak eta, epe hori igarota, gauzatu diren ala ez egiaztatuko du batzordeak.

Bilerako aztergairen baten inguruan UPV/EHUK egindako txosten teknikoa ez badator bat prebentzioko ordezkariak batzordeari aurkeztutako txostenarekin, eta bileran ez bada lortzen aldean arteko adostasunik, hirugarren txosten teknikoa eskatuko da. Lehenik eta behin OSALANI eskatuko zaio egin dezala txostena, edo Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutuari.

## **8. artikulua. Akta**

Bileretako lehen aztergaia aurreko bilerako aktaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioaren onspena izango da. Ondoren, deialdian aipatutako beste gaiak aztertuko dira.

Erabakitzeke dauden gaien buruzko informazioa idazkariak emango du.

Aktan argi eta garbi adieraziko da zein den aztergaietako puntu bakoitzari buruz hartu den erabakia.

Aktak batzordeko buruak eta idazkariak izenpetuko dituzte, eta bileran egondako guztiek berretsiko dituzte hurrengo bileran edo aurreragoko batean.

## **9. artikulua. Batzordeko kideak**

Batzordeko kideek, botoa ematean, boto partikularra eman ahal izango dute eta, baita ere, botoa zeri eman zaion esan eta arrazoiak azaldu.

Batzordeko kideek teknikari aholkulari baten laguntza izan dezakete, aztertu beharreko gaiaren zailtasunak hala eskatzen badu.

## **10. artikulua. Eginkizunak betetzea**

Batzordeak egokitzen hartzen dituen neurriak onartu ahal izango ditu eginkizunak betetzeko eta arautegi honetan aurreikusita ez dagoenerako. Bestalde, Campusarteko Segurtasun eta Osasun Batzordearen esku utziko du arautegia interpretatu eta aplikatzean sor daitezkeen arazoaren ebazpena.

Dena dela, arautegi honetan jasota ez dagoen guztirako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean kide anitzeko organoetarako zehaztutakoari jarraituko zaio.

Izan ere, Bizkaiko Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordea kide anitzeko organoa da, aipatu berri den legeko 22.2 artikuluan aipatuetakoa.

Segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia daukaten gai guztiei buruzko txostena aurkeztuko zaio batzordeari urtean gutxienez bi aldiz, ohiko bileren barruan.

### **11. artikulua. *Arautegia aldatzea***

Arautegi hau aldatzeko proposamenak onartzeko beharrezkoa izango da administrazioaren eta ordezkari sindikalen gehiengo osoa, eta Campusarteko Segurtasun eta Osasun Batzordera bidaliko dira, ebatz ditzan.

# UPV/EHUko Campus-Arteko Segurtasun eta Osasun Batzordearen Funtzionamendu arautegia

## 1. artikulua. *Definizioa*

Laneko segurtasun- eta osasun-batzordea kide anitzeko organo paritarioa da, UPV/EHUko arriskuen prebentzioei buruzko plan, programa eta ebaluazioen inguruan aldiro-aldiro proposamenak eta kontsultak egiteko batetik, eta segurtasun- eta osasunpolitika egokia antolatu, zaindu eta hobetzeko bestetik; halaxe dio laneko arrisquen prebentzioari buruzko Legeko 38. artikulua. Batzorde hori da UPV/EHUko funtzionarioen lan-baldintzak arautzeko akordioan (45. artikuluan eta ondorengoetan) eta lan-kontratua duten UPV/EHUko langileen hitzarmen kolektiboan (49. artikuluan eta ondorengoetan) aipatzen dena.

## 2. artikulua. *Osaera*

Batzordea 18 kidek osatzen dute; horietatik bederatzi administrazioak izendatzen ditu eta beste bederatzi erakunde sindikalek. Administrazioak izendatzen dituen bederatzi horietatik bat batzordeko buru izango eta beste bat idazkari; horien artean izango dira, era berean, campusetako segurtasun- eta osasun-batzordeetako buruak. Sindikatuek izendatutako kideak, berriz, izango dira irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren batzarretan ordezkariak eta enpresa-batzordeetakoak direnak, eta sindikatu bakoitzak ordezkari bat izango du, gutxienez; gainerakoak duten ordezkariaren arabera proportzionalki banatuko dira, eta horietatik sei, gutxienez, campusetako segurtasun- eta osasun-batzordeetakoren batekoa izango da, berari dagozkion eskumenekin.

Batzordeak hiru Lurralde Historikoetako campusetan izango du eskumena.

## 3. artikulua. *Zereginak*

Campus-arteko segurtasun- eta osasun-batzordearen zereginak aplika batzordeari dakioken legerian daude, eta baita ere funtzionarioen lan-baldintzak arautzeko akordioan eta lan-kontratua duten langileen hitzarmen kolektiboan. Hain zuzen ere, batzordearen eginkizunak dira:

- campus bati baino gehiagori dagokion ebaluatze-lanak koordinatzea;

- campusetako batzordeek edo, UPV/EHUko aurrekontu orokorren menpe dauden gaitan, campus-arteke segurtasun- eta osasun-batzordeak berak proposatutako ekimen, hobetzeko proposamen eta hutsune-zuzentzeen artean lehentasunak ipiniko ditu, betiere ekimen eta proposamen horiek duten garrantziaren arabera;
- campusetako batzordeei aurrezaintzarako jarduerak burutu ditzaten bultzatza; eta
- prestakuntza-jarduerak koordinatzea.

#### 4. artikulua. *Batzorde-burua*

Hauek dira batzorde-buruaren zereginak:

- a) batzordearen ordezkari izatea eta batzordearen bileretan eta lanetan parte hartzea;
- b) batzordeko bilerak deitzea, zuzentzea eta bileretako buru izatea, eta bileretako gai-zerrenda egitea, gainerako partaideen proposamenak onartuz, proposamenik egiten badute;
- c) batzordeko aktei eta ziurtagiriei ez ezik azterlan, lan eta konklusioei ere oniritzia ematea;
- d) batzordeak hartutako erabakiak behar bezala bideratzeko hartu behar diren neurriak gauzatzea;
- e) batzordekideei, beren eginkizunak burutu ditzaten, beharrezkoak iruditzen zaizkion agiriak, aurrekariak eta txostenak ematea;
- f) batzordearen jarduera koordinatzea eta, oro har, batzordeak behar bezala funtziona dezan behar diren neurriak hartzea; eta
- g) batzorde-buruari batzorde-buru den neurrian dagozkion zereginak eta batzordeak uzten dizkionak.

Batzorde-burua ez dagoenean, administrazioak izendatutako kideen arteko zaharrenak hartuko ditu bere gain haren eginkizunak.

#### 5. artikulua. *Idazkaria*

Hauek dira idazkariaren zereginak:

- a) Batzorde-buruak aurretik onespena emanda, batzordeko gai-zerrenda prestatzea eta egin behar diren deialdiak egitea.

- b)** Akta eta erabakien ziurtagiriak egitea.
- c)** Batzordearen barne- eta kanpo-agiriak bideratzea. Idazkaria izango da agiri horien zaindaria, eta horrengana joan beharko da, agiriren bat kontsultatu nahi denean.
- d)** Bilera bakoitzeko akta egitea. Puntu hauek jasoko dira aktan: aztertutako gai guztiak, hartutako erabakiak; adostasunik izan ez duten puntuak ere jasoko dira, eta baita adostasun ezaren arrazoiak ere. Aktak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira. Eta
- e)** campusetako segurtasun- eta osasun-batzordeei hartutako erabakiak jakinaraztea. Idazkaria ez dagoenean, administrazioak izendatutako kideen artetik batzordeak eskuordetutako kideak hartuko ditu bere gain haren eginkizunak.

## **6. artikulua. *Bilerak***

Batzordeak 4 ohiko bilera egingo ditu, gutxienez, eta urteko lehenengoan ezarriko du gainerako bilerei buruzko egutegia. Ezohiko bilerak batzorde-buruak edo bost batzordekide bako bako gehiagok hala eskatuta egingo dira.

## **7. artikulua. *Bilera-deialdia eta gai-zerrenda***

Batzorde-buruak edo, horrek hala agintzen badiu, idazkariak egingo du bilera-deialdia. Hiru campusetan egingo dira bilerak, txandaka. Bilera ohikoa bada, lau lanegun lehenago ditu beharko da bilera; ezohikoa bada, berriz, bi egun lehenago gehienez. Deialdiarekin batera, aurreko bilerako aktaren zirriborroa, gai zerrenda eta gai horiei dagokien dokumentazioa bidaliko dira. Abuztuan ez da batzordearen bilerarik egingo, ezta baimen erreperatuak diren aldi edo egunetan ere.

Gai zerrendan punturen bat sartu nahi duten batzardokideek puntuari dagokion dokumentazioa aurkeztuko dute, eskaera egiten dutenean, gainerako batzordekideek gaia ezagutu dezaten.

Baldin eta punturen baten inguruan erabakia hartzea ezinezkoa bada, puntu horri buruzko aurrekinak, agiriak edo txostenak falta direlako, administrazioaren eta/edo ordezkariaren sindikalaren gehiengoak eska dezake puntu hori gai zerrendatik kentzeko.

Baldin eta bilera batean gai zerrendako puntu guztiak aztertzeke denborarik ez badago, bileraren amaieran aztertu gabe geratu diren puntuak aztertzeke eguna izendatuko da.

## **8. artikulua. Batzordea eratzea eta erabakiak hartzea**

Batzordea legez behar bezala osatzeko, administrazioko sei ordezkari eta sindikatuetakoko beste sei ordezkari egon beharko dute, gutxienez. Lehen deialdian behar den quoruma lortuko ez balitz, bigarren deialdia egingo litzateke, ordubete beranduago. Bigarren deialdian batzordea legez behar bezala osatzeko, nahikoa izango da administrazioko bost ordezkari eta sindikatuetakoko beste bost ordezkari egotea.

Erabakiak hartzeke, gehiengo soila beharko da bai bileran dauden administrazioko ordezkarien artean eta bai bileran dauden sindikatuetakoko ordezkarien artean.

Hartzen diren erabaki guztiak horiek eragiten dieten zentzoei jakinaraziko zaizkie, eta erabakia hartzerakoan erabakia betetzeko epea ere ezarriko da. Epe hori behin igarota, batzordeak erabakia bete den ala ez aztertuko du.

Baldin eta UPV/EHUK gai zerrendako punturen bati buruz eskatutako txosten tekniko aurrezaintzako ordezkariak batzordeari aurkeztutako txostenarekin bat ez badator eta unibertsitatea eta ordezkariak akordio batera iristen ez badira, hirugarren txosten tekniko bat eskatuko zaio Osalani aurrena edo, bestela, laneko segurtasun eta higienarako institutuari.

## **9. artikulua. Akta**

Bilera bakoitzaren hasieran aurreko bilerako akta onartuko da, euskaraz eta gaztelaniaz, eta, jarraian, gai zerrendako puntuak aztertzeari ekingo zaio.

Idazkariak aztertu gabe dauden gaien berri emango du.

Aktan argi eta garbi adieraziko dira gai zerrendako puntu bakoitzari buruz hartutako erabakiak.

Batzorde-buruak eta idazkariak sinatuko dituzte aktak. Aktak kide guztiek berretsiko dituzte, hurrengo bileran edo hurrengo bileretan.

## **10. artikulua. *Batzordeko kideak***

Batzordeko kideek botoa emateko eskubidea izango dute. Boto partikularra eman ahal izango dute, eta baita horren esanahia eta arrazoiak azaldu ere.

Batzordeko kideek tekniko edo aholkulari bat eduki ahal izango dute, gaiaren konplexutasunak hala eskatzen duenean.

## **11. artikulua. *Batzordeari eskainitako denbora***

Batzordeko kideek beren eginkizunei eskaintzen dioten denbora lanegun arruntaren barruan sartuko da ondorio guztietarako, eginkizun horiek burutzeko hitzartutako sistemaren arabera, hitzarmen kolektiboan eta indarreko akordio arautzailean hitzartutakoaren arabera alegia.

## **12. artikulua. *Formazioa***

Administrazioak laneko segurtasun- eta osasun-batzordeari batzordekideak prestatzeko asmoz antolatutako ikastaroen berri emango dio.

Administrazioak aurrezaintzako ordezkariari eman beharko dizkie beren eginkizunak betetzeko prebentzioaren inguruan behar dituzten bitartekoak eta prestakuntza.

Administrazioak berak dituen bitartekoen bidez emango du prestakuntza hori; prebentzioaren inguruan espezializatutako organismo edo entitateekin sinatutako hitzarmenen bidez ere eman dezake. Prestakuntza emateko, arriskuen bilakaera eta sortzen diren beste arrisku berri batzuk kontuan hartuko dira. Behar izanez gero, aldiari aldiari errepikatuko da prestakuntza. Aurrezaintzako ordezkariari ere prebentzioaren inguruko prestakuntza-ikastaroak bultzatuko dira.

Prestakuntzari eskainitako denbora laneko denbora izango da, ondorio guztietarako, eta horren kostua ez dute aurrezaintzako ordezkariari inoiz hartuko.

## **13. artikulua. *Eginkizunak betetzea***

Batzordeak bidezkoak iruditzen zaizkion funtzionamendu-arauak onar ditzake bere eginkizunei buruz arautegian aurreikusten ez denerako eta arau Hajek interpretatzerakoan eta aplikatzerakoan sor litezkeen zalantzak argitzeko.



Nolanahi ere, arautegi honetan aurreikusten ez den guztia herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean kide anitzeko organoei buruzko artikuluek osatuko dute.

Edozein kasutan, batzorde hau aipatutako Legeko 22.2 artikuluko kide anitzeko organo bat da.

Urtero, eta gutxienez ohiko bi bileratan, segurtasunari eta osasunari lotutako Alberdi guztiak biltzen dituen txosten bat aurkeztuko zaio batzorde honi.

#### **14. artikulua. *Arautegia aldatzea***

Arautegi hau eta campusetako batzordeen arautegiak aldatzeko, administrazioiko eta sindikatuetoako ordezkarien gehiengo osoaren onespena behar da.